kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:23 Página 1

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2009ko ekaina - 85. zenb.

KALAPUTXI

IKER ALDABALDETREKU, ENPRENDEDORE

hitza KINKA LARRIAN

EUSKAL EZKONTZA ARGAZKITAN

BADATOR ITXAS EGUNA



HORACIO
Landa Basterretxearekin

HONTAZ ETA HARTAZ

kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:24 Página 2



Mutrikuko Institutua

2009-10 ikasturterako
MATRIKULAK

KALITATEA HEZKUNTZAN


DBH eta Batxilergoak
* Zientzia eta teknologia
* Humanitate eta Gizarte Zientziak

Goi mailako Zikloak
* Administrazioa eta Finantzak
* Instalazio Elektroteknikoak
* Akuakultura Produkzioa

Matrikula epea:
ekainaren 29tik uztailaren 3ra (biak barne)

www.mutrikubhi.net Tel. 943603627- 943603545 e-posta: idazkaritza@mutrikubhi.net

kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:24 Página 3



Kalaputxi hilabetekarixa

Argitaratzailea:
Karenka komunikazio elkartea
Barrenkale 12, behea
20830 MUTRIKU

Telefonoa: 943 603468 / 635 748 393
e-maila: kalaputxi@topagunea.com
Laguntzailea: Mutrikuko Udala
Tirada: 2.200 ale
Lege Gordailua: SS-787/01
ISSN: 1579-4792
Inprimategia: GERTU. Oñati.
Banaketa: Mutrikuko Institutuko azken mailako ikasleak

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Kalaputxik eskerrak ematen dizkizue aldizkari hau kaleratzea posible egin duzuen guztioi

Mutrikuko Udaleko Euskara Batzordeak diruz lagundutakoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutakoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundutakoa

aurkibidia

Informaziua 4
Zeuk esan *Irakurleen eskutitzak* 5
Puri-purixan *HITZA* 6-7
Bi hitzetan eta komikixa 8-9-10
HITZA *egunkariko berrien bildumatxoa* 11
Karenka *Horacio Landa Basterretxearekin hizketan* 12-13
Euskal ezkontza argazkitan 14-15
Lan giruan *Iker Aldabaldetreku* 16-17
Kulturia *Espraikada 2009: Graffitiak ormetan* 18
Kulturia *Itxas eguna / Plazatik Gaztetxera* 19
Bertsoak *Bertso sariketak 25 urte* 20-21
e-gazte! *The Wet Band* 22-23
Zorion agurrak 24
Argazki zaharrak 25
Agenda *ekaina-uztaila* 26

IRITZIA

SAN MIGEL FUTBOL ZELAIKO POZA

Batzuk herritarrek dutela hitza esaten dute, besteek zorrik ez egitea dute helburu, beste batzuk itsasoaren urdinean amaitu gabekoari daude begira, eta hara, San Migel futbol zelaia haurrek dute konkistatu, halaxe izan baita, Mutrikuko "lorategi" preziatuaren konkista. Urreisti edo eta Lemaren garaian gertatuko zen azkeneko aurtengo ekaineko festaren parekoa. Eskolatik atera eta korrika futbol zelaiaren zati bat hartzera. Aurreko batean 56 haur, neska eta mutil zenbatu nituen, beraien guraso eta zaindariak kontatu gabe. Zer gertatzen da ordea? Futbol zelaia Ondabarrora eramateko irizpidea hirigintza plangintzan sartu zuena eta hori ontzat eman zutenak oker zeudela, erabat oker. Berehalako sinadura bilketak eta ondorioz egindako hobekuntza zirriborro posiblea hor gelditu ziren ordenadoreren bateko disko gogorrean. Baina hara, Zapatero Presidentea heldu zen krisiaren aurkako lanpostuak sortzeko eskaintza bereziekin, eta Mutrikuk zer aurkeztuko eta, San Migelen futbol zelaian belar artifiziala jartzeko proposamena. Eskerrak bateren batzuk zirriborroa egina zuten. Orain denok gaude zain obrak noiz hasiko, baita San Migel erresidentziako egoiliarrak ere hauek hurbiletik ikuskatzeko. Baina etor nadin festara. Ez dago egunik haurrak ez baldin badira, gazteak edo eta sortzear duten "Mutrikuarrak" taldekoak zelaia hartzen ez dutenik. Bateren batek pentsatu al du horrek suposatzen duen aktiboaz...? Begira, Beti Gazte eta Mutrikuren arteko partiduak eman zidan zer pentsatua. Urduritasunak, epailearen hanka sartzeak, txarangak, lortu gabeko helburua, oihuak eta guztiez gain, atsedenaldian zenbat haur atera ziren Lesakako Mastegi zelaira futbolaz gozatzera? Belar artifiziala, aldagela berriak, fokoak, agian tokiren batean babes hesiak, horiek denak egingo omen dituzte orain San Migelen. Eskola Kirol, Kristozulo, Ondabarro, Mutrikuarrak, Mutriku Futbol Taldeko sei taldeak -130 kirolariak-, agian kuadrilen arteko lehiaren bat... Pentsatu al du inork hain zaindu eta preziatua izan den San Migelek eskaintzen dituen aukera zabalez? Finantziazioaz pentsatuko du bateren batek. Kalbaixoko Santo Kristo kofradiak edo "Anaiarte" gazte-jubilatuek taberna badute, agian hori izan daiteke bidea finantzaketaren zati bat lortzeko. Beraz, hausnartu, zenbatu eta hitza eman, baina une batez pentsa ezazue San Migel futbol zelaiko 2009ko ekaineko pozaz, harrobiaren iturri paregabea!

Alberto Gorritiberea

kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:24 Página 4

intereseko telefonoak

OSASUNA

Anbulatorioa (Osakidetza).....943 60 43 00
DYA zentrala.....943 46 46 22
Mendaroko ospitala.....943 03 28 00
Odol emaleen taldea.....943 60 39 30
Javier Otxagabia botika.....943 19 50 26
Lon Apraiz botika.....943 60 32 50
Larrialdiak 943 46 11 11

ADMINISTRAZIO BULEGOAK

Udaltzaingua.....943 60 70 48
.....679 16 25 00
Udaletxea.....943 60 32 44
Turismo bulegoa 943 60 33 78
Posta zerbitzua 943 60 30 44
Bake Epaitegia 943 60 70 49
Itsas etxea.....943 60 34 00
Ur patzuergoa.....902 30 22 22
Mankomunitatea (trasteak eta zaborrak)
.....943 70 07 99
Alde Zaharra eraberritzeko zerbitzua..943 60 34 18

IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA

Goizeko Izarra ikastola.....943 60 36 75
San Miguel ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 36 27
Udal euskaltegia 943 60 30 94
Musika eskola 943 60 37 80
Haur eskola publikoa 943 60 41 19

GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte Ongizate zerbitzua.....943 19 50 81
Anai Arte jubilatuen egoitza 943 60 34 10
Mikel Deuna zaharren egoitza.....943 60 38 71

ZERBITZUAK

Pesa.....902 10 12 10
Eusko Trenbideak 902 54 32 10
Loiuko aireportua.....905 50 50 05
Hondarribiako aireportua 943 19 23 47

BESTE BATZUK

Liburutegia.....943 60 41 82
Kiroldegia 943 60 31 75
Gasolindegia.....943 60 32 10
Miruaitz Frontoia 943 60 46 79

Autobusak

MUTRIKU – DONOSTIA – MUTRIKU

Mutrikutik
Astegunak 7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
Zapatuak 10:00 / 16:30
Jai egunak 10:00 / 19:30

Donostiatik
Astegunak 8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
Zapatuak 11:30 / 19:30
Jai egunak 11:30 / 20:30

MUTRIKU – BILBO – MUTRIKU

1. BIZKAIBUSen autobusa hartu Ondarroan:

> **6:10**ean hasi eta 20:10 arte, orduro. > **6:40**ean hasi eta 19:40 arte, orduro.

2. PESAren autobusa hartu Eibarren, haraino Euskotrenen

DEBARA

Astegunetan: **7:15**etik 21:15era orduro / **Jai egunetan**: **8:15**etik 21:15era, orduro

ONDARROARA

Astegunetan: **6:55**etik 20:55era, orduro / **Jai egunetan**: **7:55**etik 20:55era, orduro

Trenak

Tren guztiak, adierazitako lehenengo ordutik aurrera, **ORDURO**

DEBA – DONOSTIA – DEBA		DEBA – BILBO – DEBA	
Debatik	6:44-7:44-…-21:44	**Debatik**	6:43 -7:43 -…-20:43
Donostiatik	5:47-6:47-…-20:47	**Bilbotik**	6:00 -7:00 -…-20:00
Jai egunetan 8:44etan hasiko dira		Jai egunetan 8:43etan hasiko dira	

DEBA – EIBAR – DEBA

Debatik 6:43 / 7:43 / … / 21:43 — Jai egunetan, 8:43etan hasiko da
Eibartik 6:13 / 7:13 / … / 21:13 — Jai egunetan, 8:13etan hasiko da

Zaintzako Botikak (Mutriku – Deba)

EKAINA

19tik 21era	**M. Cristina Riveiro (zapatu goizean, J. Otxagabia)**
22etik 25era	**Javier Otxagabia**
26tik 28ra	**Lon Apraiz**
29 eta 30	**M. Cristina Riveiro**

UZTAILA

1 eta 2	**M. Cristina Riveiro**
3tik 5era	**Amaia Zalduegi (zapatu goizean, Lon Apraiz)**
6tik 9ra	**Lon Apraiz**
10tik 12ra	**Javier Otxagabia**
13tik 16ra	**Amaia Zalduegi**
17tik 19ra	**M. Cristina Riveiro (zapatu goizean, J. Otxagabia)**

APRAIZ.....630 05 50 97 **ZALDUEGI..669 26 22 01**
OTXAGABIA..689 58 57 59 **RIVEIRO.....667 33 88 90**

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA
Ian poltsa osatzeko
IRAKASLEAK BEHAR DIRA
oinarriak eskuratzeko helbideak:
www.udaleuskaltegiak.net
www.ikasbil.net eta www.mutriku.net
Sabanika aldapa, 4 · LUARDO etxea · MUTRIKU · Tel. 943 60 30 94

kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:24 Página 5



UMEEK JOLASTEKO TOKIA BEHAR DUTE

Honen bidez haurreskolako jolastokiaren aldarrikapena luzatuz zuzendu nahi dugu alkatea andrearengana.

Urtebete baino gehiago igaro da eskaera honek udalaren baietza jaso zuenetik, baina honen gauzatzerik ez dugu inondik ere ikusten. Udala jabetzen al da egoera honek gure haurrei eragiten dien kalteaz?

Gure haurrek gelatik irteteko duten aukera bakarra ikastolako jolastokia erabiltzea da. Haurrak hain txikiak izanik, beste haur guztiekin batera egotea egoki ez denez, goizeko 10:30etarako berriro gelara bueltatu behar dira (ikastolako haurren jolastordua 10:30etatik 11:30etara luzatzen da).

Konturatzen al zara, 2 urtetik beherako haurrak direla eta jolastokira ateratzeko aukera bakarra goizeko 9:30etatik 10:30etara dutela?, udako hilabeteetan izan ezik, beste guztietan oraindik eguzkiak ere ez duela joten beraiek erabiltzen duten jolas eremuan? zer esanik ez jasan behar dituzten tenperatura baxuak!! Nola neurtzen ditu udalak herritarren premiazko beharrak?

Hitzetatik ekintzetara igarotzeko ordua iritsi dela uste dugu, egunetik egunera gure etsipena areagotuz doanez. Beraz, eskaera honek udalaren aldetik merezi duen erantzuna jasoko duelakoan agurtzen zaitugu,

Mutrikuko Haurreskolako gurasoak

BI MERKATARIREN HAUSNARKETAK

Denok entzun dugu inoiz esaldi hau: "herri honetan ez dago ezer". Txarrena da gero eta gutxiago egongo dela ematen duela, komertzioak itxi eta itxi ari direla, batzuk jubilatuta eta beste batzuk salmentak gutxituz doazelako. Hori ikusteko, nahikoa da Erdiko kaletik ibiltzea eta aspaldi gabe kale bera nola zegoen gogoratzea. Nola egon daiteke hemen zerbait, dagoenean jendeak nahiago badu merkatalguneetara joan? Hori da herriko merkatariek salgaien kopurua eta kalitatea txikitzearen arrazoia. Egoera horretan, inor ez da ausartuko komertzio berria zabaltzera, ausarten bat ez bada.

Badakigu krisialdian gaudela, eta komertzioa ari dela krisi hori gehien jasaten. Hausnarketa hau ez da egiten oraingo aldia pasatzeko modua bilatzeko, gure herria etorkizunean zer izango den pentsatzeko baizik. Herria toki erakargarri bilakatzen badugu, guztiok izango dugu atseginago, jendea gehiagotan irtengo da kalera, eta, batez ere urteko sasoi jakinetan, basamortuaren itxura aldatuko dugu. Gure asmoa da goizean goizetik herritik kanpo lanera doan jendeak herrian buelta bat emateko gogoa izatea, hurrengo egunera arte etxean sartu aurretik. Labur esanda, herriko bizitza soziala egitea eta gure herria ez bilakatzea lotarako herri.

Dagoeneko merkatalguneek herrietan sortzen duten pobreziaren eta degradazioaren konstatazioa egin da (erreferentzia gisa, Frantzian gertatutakoa). Populazioaren zahartzea kontuan hartu behar da, eta tokietara iristeko dituzten zailtasunak, ulertzeko herriak eta herrietako giroa direla beste pertsonekin harremanetan jartzeko duten aukera bakarra.

Maiatzaren 14an udaleko, Bertan elkarteko eta Debegesako ordezkarien arteko mahai-ingurua izan zen, gure herrian merkataritzaren egoera agertzeko. Gure kezkak mahai gaineratu ondoren, jendea erakartzeko Beheko plazan eta inguruko kaleetan balio estetikoa eta merkataritzakoa izango duen zerbait egitea komeni dela adierazi genuen.

Garrantzitsua iruditzen zaigun beste gai bat asoziazionismoa da. Mutrikun, duela zortzi urtetik hona, Bertan merkatarien elkartea dugu, 30 elkartekide batuta. Uste dugu herriko merkatari gehienen presentzia izatea komeniko litzatekeela, baita tabernariak eta beste ere. Denok elkartuta, gure interesen ordezkari izateko eta gure kezkak agertzeko indar handiagoa izan eta gure formakuntzan zein birtziklapenean hobe-tzeko aukera izango genuke.

Bi merkatari mutrikuar

OBRETAN ZENTZU PISKA BAT IPINI, MESEDEZ

Herrian obrak eta obrak. Horrela bizi gara azken urteetan, eta datozenetan ere bai, itxura denez.

Institutuko patioa berritu duten kasuan, aprobetxatu zeiken ingurua egokitzeko, ezta? Ikastolatik kanposanturainoko tontortxoa berdindu zeiken, adibidez, eta kotxeak eta kamioiak patioaren gainetik baino patioaren parean joango lirateke. Baina inork ez du horretan pentsatu. Obra da obraren helburua. Herritarrak? Moldatuko dira herritarrak!


Bestalde, institutuaren parean egin den betelanari buruz, esan nahi dut inguru horretan dabilen jende askok pentsatu duena: Zer dela eta orain, derrepentean, herrian berdea ipini beharra? Hobeto egongo lirateke kotxeentzako aparkaleku batzuk baterian. Baina herritarrak moldatuko dira beste nonbait aparkatzen!

Kepa Ixkiri

Herri osoaren aurrean adierazi nahi duzuna adierazteko txokoa

bidali zure idatzia:

kalaputxi@topagunea.com
edo
Luardo etxea, behea



kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:24 Página 6

HITZA KINKA LARRIAN

"Lea-Artibaiko Amankomunazgoak ez dio HITZAri diru laguntzarik emango aurten". Horrela zekarren apirilaren 6ko *Hitza* egunkariak. Krisiaren ondorioz hartutako erabakia omen da. Denentzako dirurik ez, eta oraingoan ere euskara da kaltetua. Gaiaren garrantzia kontuan izanik, *Hitza* egunkariko kazetaria den Garbiñe Garagarzarengana jo dugu barrukoen berri izan asmoz.

Zer moduz daramazue azken mailukada hau?
Ahal den bezala, piska bat ohituta ere bagaude-eta krisian bizitzen. Bost urte daramagu gurdiari tiraka. Nekeza izan da ***Hitza***ren proiektua aurrera eramatea orain arte, baina egoera asko gordindu da. Guk aurrera egiteko gogoa eta kemena badugu, baina dena ez dago gure esku, ez dizkigute gauzak erraz jartzen. Berriz ere bilerak egiten ari gara honekin eta harekin irtenbidea bilatu asmoz, ea zer ateratzen den guzti honetatik.

Dirulaguntza ez emateko arrazoia?
Guri esandakoa behintzat, krisiarekin ez omen dagoela dirurik denentzat, eta behar-beharrezko gauzak betetzera joango omen direla. Euskara, itxuraz, ez da sartzen behar horien barruan, eta ***Hitza***k egiten duen lana ere ez zaie hain garrantzitsua iruditzen. Honi gehitzen badiogu Bizkaiko Diputazioak ukatzen digun dirulaguntza, ba egoera katastrofikoa dela esan dezakegu.

Eta zergatik du Bizkaiko Diputazioak jarrera hori?
Enpresa pribatua garela diote eta ez daudela gu laguntzeko. Alde batetik, ***Hitza***k ez du dirurik ematen. Ateratzen den dirua banatzaileak, inprenta eta kazetariak ordaintzeko erabiltzen da. Bestalde, Gipuzkoako Diputazioak hasiera-hasieratik ematen dio dirulaguntza ***Hitza***ri, eta Bizkaikoak zergatik ez?

Zein da dirulaguntzekiko duzuen menpekotasuna?
Hitzak %75ean finantzatzen du bere burua. Inork ez dezala pentsa gu dirulaguntzen zain gaudela aurrera egiteko. Eguneroko ***Hitza*** ateratzeaz gain, metodo desberdinak lantzen ditugu gure diru iturri izan daitezen: publierreportajeak,



> ***Hitza*zale guztiei zor diegu egunero kalean egotea, eta hala egongo gara indarrik eta kemenik gelditzen zaigun artean**

VITALICIO SEGUROS
Andonegi Asesoría
Erdiko kalea, 3 behea - Tel.: 943 60 39 05 - Mutriku

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:24 Página 7

publizitatea… Buruari hamaika buelta ematen diogu gu geure buruaren jabe izan gaitezen, baina ezin dugu dena lortu, hori ez du inork lortzen, euskal prentsan behintzat.

Gure produktua, hau da ***Hitza***, ez da kioskoetan saltzen. Harpidedunak dira gure bezeroak, publizitatea jartzen dutenak dira gure bezeroak. Eskualde mailako produktu bat da ***Hitza***. Badakigu gure mugak zeintzuk diren eta euskal prentsak dituen mugak zeintzuk diren ere badakigu, beraz, administrazio eta erakunde publikoek beraien ahotan erabiltzen duten euskararen aldeko propaganda hori bete behar dutela uste dugu.



Zein eragin du egoera honek eguneroko zuen lanean?
Aurrera begiratu eta galdera ikur handi bat besterik ez dugu ikusten. Taldean bakoitzak dituen lanez gain, proiektu honek aurrera egin dezan lan bikoitza egin beharrean gaude. Ziurtasun ezak ere ez du bat ere laguntzen, eta zenbait unetan animoak ere huts egiten dizu. Dena den, ahal dugun beste eutsiko diogu. Beste eskualdeetako ***Hitza***tan ere larriak pasatakoak dira, eta aurrera egin dute. Inguruan dugu adibide bat: Bizkaian bi ***Hitza*** daude, gurea eta Busturialdekoa. Hauek ere ez dute Diputazioaren dirulaguntzarik jasotzen. Egoera hain larria zen, bilera batean erabaki zutela egunkaria egun bat gutxiago ateratzea, hau da, astean bost egunetan ateratzen da. Geuri ere proposamen hori luzatu zitzaigun, eta ezezkoa eman genion, gure harpidedunei zor diegunagatik. Gure zuloa estaltzeko, ***Hitza*** eguna eta antzeko gauzak egin genituen, jendeak muxutruk parte hartu zuen, eta ekintza desberdinak antolatu zituzten gu laguntzeko, beraz, guk gure laguntzaile eta ***Hitza***zale guztiei zor diegu egunero kalean egotea (astelehenetan izan ezik), eta hala egongo gara indarrik eta kemenik gelditzen zaigun artean. ✘

Ez da ez txantxetakoa *Hitza*ren egoera. Baina *Hitza* irakurleek ere egiten dutelako, Amaia Andonegi Egurbide irakurle eta harpidedunarengana jo du Kalaputxik gaiaren inguruko iritzia jasotzeko asmoz.

Hitza ere bada zure eguneroko egunkaria?
Hala da. Nire ustez neurri-neurriko egunkaria da ***Hitza***. *Berria* ere badaukagu, baina euskaraz irakurtzeko ohitura handirik ez duenarentzat oso egoki ikusten dut ***Hitza***. Bestalde, herriko eta ingurukoen berriak dakartza eta horrek beste ikuspuntu bat edukitzen laguntzen dizu.

Zer aportatzen du Hitzak?
Euskara martxan egotea. Gu harro gaude herri euskalduna garelako, baina hizkuntza bat ez da mantentzen hitz eginda bakarrik, baliabide gehiago behar ditu. Ahoskotasuna beharrezkoa da, baina idatzizko eta entzunezko tresnak ere behar ditu. Egia da gutxiago irakurtzen dela, baina idatzizko euskarri batek hizkuntzaren iraupenean ere badu eragina. Euskaldunak gara eta euskaldun osoak izateko gure hizkuntzan irakurtzen eta idazten trebatu behar gara, bestela analfabetoak izango gara. Zein kultura indartsutan gertatzen da analfabetoa izatea idazten eta irakurtzen ez dakielako?

Soziologikoki ere betekizun garrantzitsua du ***Hitza***k komunitate bat kohesionatzen duelako. Zer esan nahi du honek? Inguruko gauza askoren berri duzula, giro bat sortzen duela jendearen artean, soziologia aldetik trinkotu egiten dela komunitatea. Bestalde, euskara ere ikusgarriagoa egiten du, tabernetan ikusten duzu, dendetan, eskoletan, leku publikoetan… Nire ustez alde askotatik betetzen du Hitzak bere funtzioa.

Nola *Hitza*zaletu jendea?
Egunero eta piskanaka hasita. Egunerokotasun horrek asko laguntzen du, eta konturatu orduko di-da batean irakurtzeko gai izango da edonor. Garrantzitsua iruditzen zait ***Hitza***ren harpidedun izatea ere. Urtean ez da hainbeste diru, eta etxean jasotzen duzu egunero. Kalaputxi ere hor daukagu, baina hau hilabetekaria da, eta ***Hitza***, berriz, egunerokoa. Berriak egunerokoak dira, fresko-freskoak, hurbilekoak, gure ingurukoak. Nik jendea ***Hitza***ren harpidedun egitera animatu nahi dut, ***Hitza*** ezagutzera eta ***Hitza*** eguneroko ogi bihurtzera. ✘

> **Euskaraz irakurtzeko ohitura handirik ez duenarentzat oso egoki ikusten dut *Hitza***





kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:24 Página 8



Bertokoaz gain, beste zazpi HITZA daude Euskal Herriko eskualdeetan zehar banatuta. Hona hemen horietako bostek gaur egun diru laguntzei dagokienez daukaten egoera:

Busturialdeko Hitza

Hainbat herritako udalek laguntzen dute diruz, tartean, Bermeokoak eta Genika-Lumokoak.

Bermeo. Biztanleko eta urteko 2,02 euroko laguntza. Guztira, 52.000 euro. Gobernuan dagoen alderdia: EAJ.

Busturia. Biztanleko euro bateko laguntza, eta beste 3.900 euro harpidetzatan. Guztira, 5.550 euro. Gobernuan, ezker abertzalea.

Gernika-Lumo. Biztanleko 3,30 euro ematen ditu. Guztira, 50.000 euro. Gobernuan, EA eta ezker abertzalea.

Goierriko Hitza

22 udalek osatzen dute eskualdea, eta guztiek laguntzen dute euskarazko egunkaria diruz.

Goiekiren barruan. Eskualdeko garapen agentziaren barruan sinatutako hitzarmenean kokatzen dira hamazazpi udal, eta horiek biztanleko 2 euroko laguntza ematen dute.

Itsasondo eta Legorreta. Biztanleko eta urteko 4 euro ematen dituzte. Ezker abertzalea dago gobernuan.

Ezkio-Itsaso. 2 euro. Alkatetzan, Herriko Independenteak.

Legazpi. Urtero deialdi publikoa egiten dute, gutxi gorabehera 1,5 euro emanik. Gobernuan, ezker abertzalea.

Urretxu. Biztanleko 1,5 euro eta harpidetzatan 1.800 euro ematen ditu. Agintean: ezker abertzalea.

Zumarraga. Herritarreko 1,5 euro eta harpidetza kontzeptuan beste 3.500 euro bideratzen ditu. Gobernuan PSE dago.

Oarsoaldeko Hitza

Lau udal daude eta guztiek laguntzen dute.

Errenteria-Orereta. PSE dago alkatetzan, eta biztanleko 0,54 euro ematen ditu.

Lezo. 2,75 euro biztanleko ematen ditu Udalak. Gobernuan ezker abertzalea dago.

Oiartzun. Herritar bakoitzeko eta urteko 2,75 euro. Alkatetza ezker abertzaleak dauka.

Pasaia. Udalak biztanleko 0,77 euro bideratzen ditu euskarazko egunkarira. Ezker abertzalea dago agintean.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza

30 udaletatik 23k ematen dute laguntza, herri handiek zein txikiek. Hemen adibide batzuk:

Amezketa. 1.000 euro ematen dituzte. Independenteak daude agintean.

Tolosa. 33.280 euro. Gobernuan, EAJ.

Villabona. 17.250 euro. Agintean, ezker abertzalea.

Zizurkil. 8.370 euro. Agintean, EAJ dago.

Urola Kostako Hitza

Udal guzti-guztiek ematen diote HITZAri laguntza. Hemen batzuk:

Orio. Euro bat biztanleko; guztira, 4.695 euro. Agintean, EAJ.

Zarautz. Biztanleko 1,38 euro. Guztira, 30.450 euro. Gobernuan, alderdi guztiak.

Getaria. 5.000 euro bideratzen ditu euskarazko egunkarira biztanleko eta urteko 2 euro emanda. Agintean, EAJ.

Zumaia. Guztira, 27.456 euro; biztanleko 2 euro. Gobernuan, ezker abertzalea eta EA.

Zestoa. Biztanleko eta urteko 2 euro emanda, 6.600 euro ematen ditu. Gobernuan, ezker abertzalea.

Azpeitia. EAJ dago urtarriletik agintean. 1,9 euro ematen ditu Udalak biztanleko eta urteko. Guztira, 27.000 euro.

Azkoitia. Herritarreko euro bat emanda, 11.000 euro bideratzen dituzte HITZAra. Agintean, EAJ. ✘

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA

Hamahiru udaletatik seik ematen dute laguntasuna. Bestalde, orain arte Lea-Artibai Amankomunazgotik eta publizitate kontzeptuan gainerako udalek ematen zuten laguntza -35.000 euro, ia-ia Tolosak berak bakarrik ematen duen kopurua- kendu egin dute aurtengo urterako.

Aulesti. Biztanleko eta urteko 3 euro. Guztira, 2.026 euro. Gobernuan, ezker abertzalea.

Berriatua. 3 euro. Guztira, 3.009. Independenteak daude agintean.

Gizaburuaga. 3 euro. Guztira, 564 euro. Independenteak agintean.

Ispaster. Euro 2. Guztira, 1.202 euro. Herritarren Ahotsa gobernuan.

Munitibar. 3 euro. Guztira, 1.534 euro. Gobernuan, EAJ.

Mutriku. 2 euro: guztira, 10.000 euro, guztira. Gobernuan, EAJ. ✘



kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:24 Página 9

ITSAS ONDAREARI BURUZKO JARDUNALDIAK

Mutrikuk hiri-gutuna jaso zueneko 800. urteurrena ospatzen duela eta, Udalak Eusko Ikaskuntzarekin duen hitzarmenaren baitan antolatu diren jardueretako lehenengoak izan ziren jardunaldiak.

Jardunaldi hauen barnean Juan Antonio Apraiz itsasgaietan adituaren eskutik, bi hitzaldi eskaini ziren Zabiel jauregian: Lehena, maiatzaren 26an, Euskal Herriko Arrantza Tradizionalari buruzkoa; eta bigarrena, maiatzaren 29an, Itsasontzi eta Nabigazio Teknika Tradizionalei buruzkoa. Hizlariak, ondarearen ikuspegi bizia eman nahirik, hitzaldietan aipatuko zituen zenbait itsas tresna ekarri zituen, entzuleek ikusi eta ukitzeko aukera izan zezaten, baita liburu pila bat ere nahi zutenek beren orrien muinetan sartzeko.



Hizlaria berreskuratutako itsas ondare elementuak aurrean dituela.

Hurbileko kontuak ziren entzuleentzat, eta solasaldi erraz eta aberatsak gertatu ziren, batik bat, galde-erantzunen unean. Behin eta berriz errepikatu zuen hizlariak nolako zailtasunak dauden itsas ondarearen berreskurapena egiteko lehorrekoekin konparatuta, eta behar adinako garrantzia eman behar diogula orain-dik esku artean dauzkagun tresnei eta lanabesei, zeren, atzokoak gaur falta bazaizkigu, bihar ez baititugu gaurkoak izango arreta hori jarri ezean. Solasaldiaren tarte batean, zenduta dauden mutrikuar batzuen lekukotasunak jasota zituela adieraztean, kezka eta pena sorrarazi zuen zenbait entzulerengan, askotan aurre-aurrean ditugun balioak estimatzen ez jakitearren.

MUTRIKU OSOA PACHTWORK BATEAN



ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

ZUTABE
sukaldeko altzariak
osa
aroztegia

.....dekorazio proiektuak
.....sukaldeak
.....ateak
.....leihoak
.....egurrezko lurrak
.....neurriko altzariak
...gremioen koordinaketa
Artibai kalea · ONDARROA · 94 683 02 29 · zutabesukaldeak@euskalnet.net

kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:24 Página 10

SAN MIGUEL EGOITZAREN BERRINAUGURAZIO EKITALDIA

Nahiz eta instalazioak handitzeko eta araudi berrira egokitzeko lanak lehenagotik amaituta egon, ekainaren 5ean Maite Etxaniz Gizarte Politikarako foru diputatuak berrinauguratu zuen egoitza. Ekitaldian Josebe Astigarraga herriko alkatea, eta Udaleko zein Gizarte Politikarako Departamenduko ordezkariak izan ziren.


Maite Etxaniz diputatua San Miguel egoitzan.

Burututako obren ondorioz lortutakoak, gela kopurua 36tik 47ra gehitzea, zona komunak handitzea, aire egokitua ipintzea, oztopoak kentzea, bainugelak ezinduentzat egokitzea, sukalde berria jartzea, eta sarrera-irteerak hobetzea, besteak beste.

Egoiliarren aurrean, Alkate andreak hartu zuen hitza, eta denei ongi etorria eman ondoren, harro sentitzeko egoitza daukagula esan zuen, egokia, urteetarako ikusmirarekin egina, eta batzuei buruko min ugari emandakoa; ez baita erraza, zioen, egoiliarrak barnean direla obretan jardutea. Publikoki eskerrak eman nahi izan zizkion, espresuki, Jontxu Elordiri azken hogeita hamar bat urteetan egindako lanagatik, eta Jontxu jubilatzeko gogoarekin badabil ere, beste urte batzuetan jarraitzeko eskatu zion.

Maite Etxaniz foru diputatuak hartu zuen hitza ondoren, eta obrak antolatzerakoan izan dituzten zailtasunak ikusita, eskerrak eman zizkien fundazioari, kongregazioari, langileei eta udalari. Azpimarratu nahi izan zuen, eta poztekoa zela esan, egoiliarrei, kongregazioari eta langileei esker AENOR etxearen ISO 9001 kalitatezko ziurtagiria jaso izana. Bide horretatik jarraitzeko eskatu zien arduradun eta langile guztiei, eta Gizarte Politikako Departamendutik ahalik eta zerbitzu onenak ematen saiatuko direla agindu zuen.

Ekitaldia instalazioak bisitatuz bukatu zen.

ERREALAREN LAGUNAK 100. URTEURRENAREKIN BAT

Errealak aurtengoan mendea bete du, 100 urte gipuzkoarrei poza eta sufrimendua eskaintzen. Gure herriko *Mutrikuko Errealaren Lagunak* peñak jaia antolatu du ekainaren 27rako, herriko errealzale guztiek, eta batez ere peñakoek, hain urte seinalatua ospa dezaten.

Egun osoko egitaraua hamaikak laurden gutxiagotan hasiko da Goiko plazan izango den txupinazoarekin. Jarraian, Peñako bazkideek erretratoa aterako dute eleizako eskaileretan, eta Batzokira zuzenduko dira hamaiketakoa egitera.

Eguerdian, 12etan, Txurruka plazan zezenak eta pottokak izango dira gazteentzat, eta txarangak lagunduta eta girotuta txikiteoa egingo da, Peñakoek Beheko plazan ordu bi eta erdietan izango duten bazkarira arte.

Arratsaldean, hiru eta erdietan hasita, Txurruka plazan puzgarriak izango dira gazteenentzat, eta helduagoentzat... Helduagoentzat egunak aurrera jarraituko du.

Ekitaldi guztietan parte hartzeko, derrigorra izango da peñaren edo errealaren kamiseta janztea, elastiko txuri-urdiña.

MUTRIKUKO ERREALAREN LAGUNAK

komikixa — josu ituarte "pitxame"



kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:24 Página 11

ARNOKO V. MENDI LASTERKETA

Egun dezente eman zituzten Burumendi Mendi Taldekoek aurtengo mendi lasterketa prestatzen. Azkenean ekainaren 7a iritsi zen, eta ordurako dena prest zeukaten. Goiz hasi zuten eguna, hala beharko! Goizeko bostak aldera bi lagun abiatu ziren aurreko egunean markatutako ibilbidea berrikustera, markak bere lekuan ote zeuden edo... Urtero moduan, puntu jakin batean bota-ta zeuden markak berriro jarri behar izan zituzten bere tokian. Bitartean, beste taldetxo bat goize-ko seietan elkartu zen eguna antolatzen hasteko: hornidura puntuetara edari-janariak karriatu, parte hartzaileen zerrendak osatu, sariak presta-tu, taldeak koordinatu...

Goizeko zortzietan, Jose Agustin Urangaren oroi-menez minutu bateko isilunea egin ondoren, hasiera eman zioten ibilaldiari oinezkoek. Guzti-ra 264 oinezko.



Parte hartzaileak eta podiuma. Ladis eta Oihana mutrikuarrak garaikurrekin.

Hauek izerditan hasita zeudenerako, goizeko hamarretan, berriro minutu bateko isilunea egin ondoren, kronometroak martxan jarriaz bat hasi ziren hankak hegan. 106 hanka pare, zein baino zein arinago. Denen artean biz-korrena Arrasateko Aritz Kortabarria izan zen, ibilbide osoa ordubete 38 minutu eta 28 segundutan eginda. Mutrikuarren artean, txapela Oihana Kortazarrek jan-tzi zuen, ibilbidea ordubete 56 minutu eta 25 segundutan eginda; sari honetaz gain, lehenengo emakumearen saria ere jaso zuen, baita parte hartzaile guztien artean zozketatu zituzten Goixenetxeko ardi-esnez egindako gazta goxoa ere. Sari mordoxka eraman zituen Oihana Kortazarrek etxera. Lehenengo gizonezko mutrikuarra, berriz, Ladis Velasco izan zen, ibilbidea ordubete 57 minutu eta 36 segundutan burututa. Zorionak biei!

Aipatu goiz osoan zehar parte hartzaileen artean sumatu zen giro ona, eta, batez ere, hauetako batek esandakoa "proba hau hasi zenetik urtero etortzen naiz bertara, gustura etorri ere! Hain da ederra da ibilbidea... Niri izugarri gustatzen zait, eta antolaketa ezin hobea da!". Beraz, zorionak Burumendi Mendi Taldekoei egindako lan onagatik, eta parte hartzaile guztiei ere bai.

GAZTETXIAK MUTRIKUKO KUADRILEI DEIA KUADRILA EGUNA ANTOLATZEKO

Mutrikuko Jai Batzorde Alternatiboa osatuta, Mutrikuko hainbat kultur eta gizarte eragile elkarlanean hasi da herrian hainbat ekintza antolatzen, elkarri lagunduz. Elkarlan honekin eragile ezberdinak elkar-tzea lortu dugu, hala nola, Akelarre Antzerki Taldea, Dantza taldea, Zine Forum, Txantxangorri, Ikas-le Abertzaleak, Bertso Eskola, Askatasuna, Erraldoien Konpartsa, MRK, SEGI, MUGA eta Tranpan Gora Tabernari Elkartea.

Uda urreratzen dagoenez eta Malen Jaiak ere gainean ditugunez, eragile guztien artean herriko jaiak antolatzen hasi dira, herritarrak antolatutako jaiak sor-tzea eta era berean herriak jai hauetaz gozatzea da helburu nagusi hartuta.

Iada egun gehienetako egitaraua osatuta egon arren, kuadrila eguna antolatzeko herri-ko kuadrilekin batzea erabaki da, azken finean, egun honetaz gozatzen dutenak herriko kuadrilak direlako. Era honetan, kuadrila guztiei deia luzatzen zaie Kuadrila Eguna antolatzeko buru-tuko den batzarrera agertzeko. Gainera, beste egunetan antolatu daitezkeen ekintzak proposatzeko ere aukera egongo da.

Era honetan, esan batzarra Gaztetxean izango dela, ekainaren 26an, ostirala, arratsaldeko 7etan. Kuadrilaren batek agertu ezin badu, posible du bere proposamena gaztetxeko postontzira botatzea edo gaztetxeko posta elektronikora mezu bat bidaltzea: mutrikukogaztetxia@hotmail.com.

Zure establezimenduaren berri mutrikuar guztiei emateko...
KALAPUTXI
Luardo etxea, behea · Barrenkale, 12 · Tel. 635748393
kalaputxi@topagunea.com

koadrila afariak, bazkariak, bataioak, eguneroko menua
MUTRIKU - DEBA ERREPIDEA
LARANGA AUZOA
Etxeko Telf. 943 60 31 17
Jatetxea Telf. 943 60 31 67
SAN JUAN
MUTRIKU

kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:24 Página 12

HORACIO Landa Basterretxea,

hara eta hona, hontaz eta hartaz

Horaxio izenez ezagutzen dugun herkidea hartu dugu solaskide hilabete honetan, harako eta honako bizitza oparoak utzi dizkion kontuak errepasatzen. Zizurkilen 1933 urtean jaiota, gerra zibiletik babestearren gurasoekin batera Donibane Lohitzunera egin zuen ihes, eta handik, Gran Bretaña itsasontzia hartuta, Venezuelara, beste euskaldun askok egin zuen moduan, baina Mutrikura itzuli zen. Han eta hemen, hamaika komeria.

Hara eta hona hainbat urtetan...

Venezuelara joan ezkero, Mutrikura 1953 urtean itzuli nintzen lehenengoz bisitan, eta ordutik aurrera horrelaxe ibiltzen ginen: Venezuelan bizi eta, Mutrikurekin harremana ez galtzearren, bi urtean behin edo hona etortzen ginen.

Bidaia horietako batean, 1963 urtean, gurasoak hemen gelditu eta kinkailadenda eta janari denda jarri zuten; bi urtera, izeba Rebeca gelditu zen dendaren likidazioa egiteko, eta Venezuelara itzuli ginen. Urte batzuk han egin ostean, gurasoak hona etorri eta hemen gelditu ziren. Ni Venezuelara itzuli nintzen.

> **Bitxi saltzailea nintzen eta hil egin ninduten; hantxe hasi zen filmea.**

Mutrikun itzuli eta ezarri zinenean, jolastokia ipini zenuen martxan...

Jolas tokia 1971 urte aldera ipini nuen martxan. Garai hartan nik herriko gazteei aukera berriak eman nahi nizkien, alaitasun bat eskaini nahi nien. Ping-pong txapelketak antolatzen nituen... Bartzelonatik ekarritako futbolin berrienak neuzkan… Nireak momentuko hoberenak ziren.

Nik jolasentzako aretoa Atxitxin kalean, gaur egun Axularren estudioa dagoen tokian jarri nuenean, Ingalaterratik bidaltzen zidaten musika, punta-puntako taldeen puri-purixan zeuden diskoak: Santana, Led Zeppelin, Jethro Tull… Orduko gazteek bazekiten musika hura gozatzen!

Isidro Iparragirrek bere jolastokia zeukan martxan, baina nire ustez nire aretoak zerbait berezia zuen –zer esango dizuet nik, ba!-.

Leizaola lehendakariarekin ikusi zaitugu argazki baten...

Venezuelan, Simon Bolivarrek askatutako herrialdeen arteko eguna antolatzen zuten, Bolivia, Peru, Ecuador, Chile eta Venezuelako ordezkariak elkartuta, eta bertan Anasagasti eta bere ama, Itziar *Txanbel* mutrikua-



Cuestión de suerte **filmea iragartzeko kartelean, Eduardo Noriegarekin.**


JARRI-TOKI
Jatetxea
- Eguneko menua eta karta
- Familia giroko bazkariak
- Enpresa bazkariak
- Ezkontza, bataio, Jaunartze...
Tel. 943 60 32 39 MUTRIKU

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:24 Página 13

rra, Leizaola eta emaztea eta beste hainbat euskaldun biltzen ginen. Nire gurasoek hotela izan zuten Venezuelan, eta handik genuen harreman estua Leizaolatarrekin eta beste euskaldun askorekin.

Arte lanetan ikusi zaitugu...

Pintura betidanik izan dut gogoko. Ikasten ere egon nintzen, baina marrazketa lineala, geometrikoa. Hala ere, ikasten hasi aurretik ere banuen zaletasuna: Bost urte nituela, Donibane Lohitzunen, lagun batekin garage baten sartu eta han zegoen kotxea goitik behera pintatu genuen. Esan daiteke ordutik dudala pinturarako zaletasuna.

Beranduago, adibidez jolas tokia izan nuen garaian, muntatzen nituen nazimientoak-eta neuk egiten nituen, enbalatzeko papera etxean landuta. Herriko jende asko propio joaten zen hara lan haiek ikustearren. Don Jaimek ezetz esaten zidan, hura ezin zela papera izan eta neuk egina gutxiago. Bestelakoak ere, burdinean eta beste materialetan ere egin izan ditut lanak, botilak pintatu... Bai, pintura eta oro har artea bizitzako zaletasun handienetako bat izan dut.

... eta zinean ere bai...

Betidanik izan dut gogoko zinea ere. Mutrikuko aktore bikainarekin, Juan de Landarekin, sarritan izaten nintzen moilan arrantzan, hura pelikula bat filmatu eta hurrengoa egin artean Mutrikura zetorrenean. Arrantzan ez ezik, Alla pelikulas deitzen zuen soloan ere izaten nintzen harekin, zineari buruz hizketan.

Eta kamararen aurrean egotea zer den ere probatu ahal izan nuen, behin baino gehiagotan, gainera. Gerrari buruzko *Eligió el infierno* filmearekin debutatu nuen 1956 urtean, Conrado San Martinekin, Juan Artetxerekin eta Carlos Larrañagarekin.

Venezuelan bi filmetan hartu nuen parte: *La balandra Isabel llegó esta tarde* (1950), altxor baten inguruko filmea; eta *El pez que fuma* (1976), putetxe baten ingurukoa.

Aktore ezagunagoekin ere izan nuen aukera errodajeak egiteko: Rocio Durcal eta Fernando Rey aktoreekin *Dímelo con flores* (1974) filmean egon nintzen, Donostiako Kontxan filmatuta. Baita Imanol Ariasekin ere 70eko hamarkadan.

Mutrikun filmatu zen pelikula izan zen nire azken filmea *Cuestión de suerte* (1996), Eduardo Noriegarekin. Bitxi saltzailea nintzen eta hil egin ninduten, hantxe hasi zen filmea.

Zineaz gain, telebista probatzeko aukera ere izan genuen: *Goenkalen* izan nintzen Koko izan zenarekin eta Josu zapaterorekin.

Inoiz ez nuen akademian ikasi, baina... karreratxo polita egin dut!

Tailerrean ere jardun zenuen lanean...

Katean egin nuen lan, elektronika departamentuan, Fagorrentzat gauzak muntatzen. Han ere eskulanean...

Eskerrik asko, Horaxio, kontu hauek guztiak kontatzeagatik. Hurrengoan, gehiago. ✘

Venezuelan harreman estua izan genuen Leizaolatarrekin eta beste euskaldun askorekin

Puri-purixan zeuden diskoak ekartzen nituen Ingalaterratik: Santana, Led Zeppelin, Jethro Tull...



Leizaola Lehendakariarekin eta emaztearekin, Caracasen.

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
943 60 35 44


Vitoria Optika
OPTIKARI - OPTOMETRISTA
> Graduazioak eta audiometriak etxean bertan ere egiten ditugu.
> Audifono digitalak, audifono analogikoak, osagaiak...
> Eguzkitarako osagarriak...
> Ikusteko laguntza bereziak...
Ipar kale, 1 - ONDARROA Tel: 94 613 41 38 - mvitoria@cnoo.es







































kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:24 Página 16

IKER ALDABALDETREKU, ENPRENDEDOREA

Maiatzean bete du urtea HADIMEK, SL izeneko enpresak. Pieza handiak mekanizatzen ditu, Itziarko poligonoan. Hogeita bederatzi urte dituen mutrikuar gazte batek martxan jarritakoa da: Iker Aldabaldetrekuk. Enprendedore saria eman berri diote Ikerri. Uste baino zabalkunde handiagoa eman omen dio "diplomatxo" horrek, eta pozik jaso du. Horixe aitzakia hartuta egin dugu berriketalditxoa berarekin.

Enprendedore bat ez da goizetik gauera egiten. Has gaitezen hasieratik: zer ikasi duzu?

Nik batxilerra bukatu eta uda hartan Teksoft CAD-CAM programa ezagutu eta ikasteko aukera izan nuen GOITEK enpresan, Jose Mari Txaparroren eskutik. Irailaren hasieran, diseinatzeko programa hori erosi zuen enpresa batek programa erabiltzen zekien norbait bidaltzeko eskatu zuen, eta neuri eman zidaten aukera. Hasieran sei hilabeterako zena, azkenean bi urtera luzatu zen. Ni oso gustura nengoen arren, delineazioa ikasi nahi nuen, eta nagusiei azaldu nien asmoa. Azkenean, topatu genuen lanari utzi gabe ikasteko modua: lanordu guztiak goizez egin eta gauez ikasi, Donostian aurkitu nuen zentru batean. Horrelaxe pasatu nituen hiru urte: lanean eta ikasten. Kontratu finkoa egin zidaten, gainera. Ikastea bukatu eta beste hiruzpalau urte jarraitu nuen bertan lanean.

Lan egin eta ikasi; erritmo gogorra, ezta?

Pasada bat izan zen, goizeko zortzietatik gaueko bederatziak arte gelditu gabe. Bukatu ondoren, arratsaldeko seietan ateratzen nintzen lanetik eta hauxe esaten nion neure buruari: *Orain, zer egin behar duk?* Eibarko asesoria baten bidez, kalitateko kontsultore lanetan hasi nintzen arratsaldetan, neure kabuz. Negozio moduan baino gehiago hobby gisa hartu nuen, eta oraindik ere jarraitzen dut horretan.

2006an, hogeita sei urte nituela, Amenabar eraikuntza-enpresa handiaren eskaintza bat izan nuen. Ni, orduan, produkzio arduradun nengoen Talleres Gainzan. Lantegi hartan gustura nengoen, baina iruditzen zitzaidan oso gaztea nintzela eta, han, ikastekoak ikasita-edo neuzkala. *Horrela egon behar nauk hirurogeita bost urtera arte?* pentsatzen nuen. Ez nuen neure burua han ikusten, eta onartu egin nuen eraikuntza alorreko eskaintza berria. Beste mundu bat zen, zeharo desberdina eta erakargarria. LANDU promotoran hasi nintzen lurzoru erosketa-arduradun lanetan. Baina gauzak ez ziren uste bezain politak izan, eta urtea bete nuenerako, erre samartuta nengoen; oso proiektu gogorra egokitu zitzaidan, gainera: Txontako proiektua, Eibarren. Ni mekanika eta produkzio mundutik nentorren eta gauza asko ikasi nituen, baina mundu hura ez zen nire gustukoa izan, eta beste zerbait topatu beharra neukala erabaki nuen.

> **Goizean lanean eta arratsaldean ikasten jardun nuen hiru urtetan, Donostian delineazioa ikastearren**

Promotorako lanari utzi eta enprendedore izateari ekin...

Kurrikuluak bidaltzen hasi nintzen, baina ez nekien nora joan lanera, eta pentsatu nuen huraxe zela momentua eta zerbait ipini behar nuela neure kontura, metal munduarekin lotutako zerbait. Baneukan Talleres Gainzan neurekin lan egindako lagun bat, inoiz ezer ipintzerik erabakitzen banuen berarekin akordatzeko esan zidana —eta hori niri ez zitzaidan ahaztu— Azaldu nion nire asmoa eta baiezkoa eman zidan. Zer tailer tipo, nolako makinak, zenbateko inbertsioa eta abar pentsatzen hasi ginen: zoratzekoa! Gainera, gertukoenekin hitz egin eta denek esaten zidaten: *Zu zoratuta zaude!*

Bueltak eta bueltak eman ondoren, biontzako bakarrik proiektu handiegia zela ikusi, eta gurekin lanean ibilitako beste bi gazteri galdetu genien ea prest zeuden, eta langile bezala ezetz, baina sozio izatekotan baietz erantzun ziguten. Beraz, laurok ekin genion, eurak hirurak tailerrean eta ni beste gauza guztiez arduratzen. Azterketa ekonomikoa egin nuen, ikusi genuen nola finantziatu, pabiloia alokatu genuen, makinak erosi, eta martxan hasi ginen.

Zer da enpresari izatea zuretzat?

Proiektu bat buruan izan eta proiektu hori aurrera eramatea langileen laguntzarekin. Nik badakit gaur egun enpresarioa ez dagoela ondo ikusia gizartean, baina nik oso garbi daukat nire langileekin kontatu behar dudala, nire proiektuaren zati garrantzitsu bat direla eta langilerik gabe enpresa ez doala aurrera. Ni oso zorrotza naiz langileekin, sozioekin eta baita neure buruarekin ere.

Zergatik ikusten dira hain gazte gutxi tamaina horretako erabakiak hartzeko prest daudenak?

Egin berri den WOKA EUSKADI bilgunean ere horixe komentatzen genuen. Gazteei ez zaie irakaskuntzatik motibaziorik inkulkatzen. Lanbide Heziketa eta Unibertstitateko formakuntza, behintzat, guztiz lotuta egon beharko lirateke enpresa munduarekin; azkenean, praktikatik etortzen da enprendedore izateko hazi hori. Gazteak oso-oso eroso bizi dira: lan batean hasi, 8 ordu bete eta etxera joatea dute helburu, eta mentalitate horrekin ez dago enprendedore-sen hori aurrera eramaterik. Enprendizaje horretan txiki-txikitatik ohitu behar ditugu. Jakinmina arlo honetan bultzatu beharra dago. Eta uste dut erraza dela dena arriskatu duen pertsona batek sor-

kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:24 Página 17

tutako lantegi bateko langile izan, eta gauzak oker doazenean, segituan pertsona horren aurka joatea.

Egin berri den greba zentzugabeko horren kasuan bezala. Itziarren tope egin nuen batzuekin eta horrela ezin dela zioten, nagusiek urtetan irabaziak izan dituztela eta horrela ezin dela, eta antzekoak esaten. Hori nik ulertzen ez dudan eta inoiz ulertuko ez dudan postura da. Baina, orokorrean, gehienak horrela pentsatzen dutenez, nik etorkizuna (krisia aparte lagata ere) nahiko beltz ikusten dut, jendeak galduta dauka lanarekiko konpromisoa; ez da horrelakorik ikusten. Gaur egun zaila da lanarekin konpormetitzen den langile bat aurkitzea. Txipa aldatu beharra dago.

Nolakoa izan da entitate publikoen jarrera?

Trabak ipintzen ibili beharrean, erraztasun pixka bat emateko eskatuko nieke. Adibide bat jartzeko, Debako Udalak urtebetera eman zigun obrak egiteko baimena. Ezin da zain egon! Tramiteak egin, egin behar dira, baina ezin da proiektu bat urtebete geldiarazi horrelako baimen baten zain. Laguntza gehiago eta informazio gehiago eman beharko luke-te. Finantziazio arloan laguntzeko dauden erakundeak ere —Oinarri, gure kasuan— denbora alferrik galarazi baino ez digute egin; azkenean, geure kabuz lortutako abalekin eskatu behar izan dugu mailegua, zeren eurek ere abalak eskatzen baitzizkiguten. Horretarako ez daukagu inoren beharrik! Laguntzeko daudela sinestarazi nahi digute, baina azken finean, euren lana justifikatzeko baino ez daude.

Zorionak, Iker, eta iraun dezala luzaroan zure proiektu horrek! ✘



“Geure kabuz lortutako abalekin eskatu behar izan dugu mailegua. Erakundeetatik, laguntza gutxi...

kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:24 Página 18

SPRAIKADA '09

Herri Ituna idatzi zenetik 800. urteurrenaren ospakizunen egitarauan, SPRAIKADA 09 izenarekin "Euskal Herriko VI. Graffiti Lehiaketa" antolatuko da Mutrikun Udalaren ekimenez. Topagunea, Euskara Elkarteen Federazioa, izango da, besteetan bezala, antolaketaren arduradun. Parte hartzeko izena ematen dutenen artean, hamar proposamenik onenak aukeratuko dira, eta horiexek lehiatuko dira Mutrikun uztailaren 18an, 1.500, 1.200 eta 900 euroko sariak lortzeko. Ekainaren 30ean bukatuko da proposamenak aurkezteko epea.

Herriko "hip-hop" kulturaren jarraitzailerengana hurbildu gara, eta hona Asier Estancona "RIU"rekin hitz egindakoak.


Zein da zure iritzia udalaren ekimenez uztailaren 18rako antolatu den "Spraikada" lehiaketari buruz?
Aurretik esan nahi nuke, orain gutxi arte ez naizela enteratu udalaren asmo honetaz; uste dut publizitate falta nabaria izan dela herritarrontzat. Azken urte hauetan "rap" kantu mota jorratzen badut ere, hip- hop kulturaren beste adar bat izanik, gutxi izan arren, praktikatu dut graffitia, baina, egin izan dudanean, zerbait adierazi nahian izan da; lehiatzea ez da inoiz nire buruan egon, eta mugimenduak berak ere ez du niretzat zentsu hori; hala ere, badira mugimenduaren barnean beste era batera pentsatzen dutenak ere: graffitiaren historiari begiratze bat ematea besterik ez dago, nolako aldakuntzak izan diren ikusteko. Nire iritzia eta jarrera lehiaketaren aldekoa ez izan arren, ulertzen ditut besteen jokaerak, eta baita graffitiarenganako ikuspegi baikorra transmititu dezakeela ere; beraz, ez nago erabat aurka.

Nolako partaidetza izan duzue herriko graffitizaleok ekimen honetan?
Arestian esan bezala, ni neu oso berandu enteratu naiz Mutrikun izan behar zela "Spraikada 09", eta egia esan, ez dut jakin inorengana jo dutenik iritzi bila ekimen hau aurrera eramateko; baina, agian, izan daiteke. Ez dakit.

Oraindik proposamenak aurkezteko epe barnean zaudete; ba al duzue parte hartzeko asmorik?
Esan bezala, nik gutxi praktikatu dut eta ez daukat kalitaterik horrelakoetan parte hartzeko, eta herrian dagoen maila ere apaltxoa dela esango nuke; beraz, ez dut uste inork parte hartuko duenik. Dena den, udalaren nahia graffitiaren kultura promozionatzea bada, eta graffitien lana erdi ezkutukoa izaten denez, egokia litzateke herritarrentzat hormatxoren bat uztea, lehiaketatik kanpo izanda ere, lasai-lasai jarduteko.

Nolako maila izaten da lehiaketa hauetan?
Esango nuke Euskal Herrian dagoen maila ona dela. Baditut Donostia aldean lagunak oso iaioak direnak teknika aldetik, bi eskuekin batera aritzeko gai direnak, eta, maila artistikotik begiratuta, zer esan: ohituta gaude era bateko espresioak bakarrik arte kontsideratzen, museo eta galerietan aurkitzen direnak, batik bat, eta graffitia, hain zuzen, ez da eremu horietan bizi; baina, batzuontzat, garrantzi handiagoa izan dezakete hauetan zabaltzen diren mezuak, eta ekintza artistikoak kontsideratzen ditugu. Azken finean, gure kodigotxoak ere baditugu non eta nola jardun, eta hormak "dekoratu" egiten ditugu. ✘

"Graffitiarentzako ikuspegi baikorra transmititu dezake lehiaketak, eta hori ez da txarra"




Asier *RIU* graffiti baten ondoan.



Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:25 Página 19

ITXAS EGUNA, SAN PEDRO BEZPERAN



Ekainaren 28an, San Pedro egunaren bezperan, herriko moilan atzera begirako jardunaldia antolatu dute hainbat herritarrek, udalaren laguntza izanda. Izan ere, itxasoarekin lotutako lanbide zaharrak gogora ekarri ez ezik, horiek praktikan jarri ere egingo dira. Amuak, suleiñak, tretzak,... lege zaharrean egiten jardungo dute herriko itsas-gizonek eta itsas-andreek.

Gero eta atzerago, gero eta ahaztuago geratzen ari zaigun gure historiaren, gure izatearen zati horiek zuzen-zuzenean ikusteko auskalo azken aukera izango den egun honetarako egitarau zabala prestatu dute. Izan ere, aurreko egunean, zapatuarekin, pregoilariak hurrngo eguneko itsas eguna iragarriko baitu herriko kaletan zehar, arratsaldeko zazpietatik aurrera.

Hurrengo goizean, San Pedro bezperan, goizeko bederatzi eta erdietan seiñeruak itsasorako deia egingo du herriko kaleetan. Ondoren, hamar eta erdietan, arrantzaleak itsasoratu egingo dira eta lehorreko itsas-gizonek lanbide zaharretan hasiko dira: amugileak, tretzagileak, karnatatzaileak, aparejugileak...

Hamaika eta erdietan baliaren ehiza izango da portuan, eta ondoren arrantzaleak lehorreratu egingo dira. Bitartean, beste ofizio batzuetan jardungo dute beste itsas-gizon eta emakumeek: despeskan, arrain salmentan...

Eguerdi aldera, dena ez baita lana izango, hamaiketakoa eta kantuak etorriko dira itsastarrek hiruretan izango duten bazkarira arte.

Arratsaldean arrantzaleak itsasora eta lehortarrak lanera itzuliko dira, harik eta txalaparta hotsek itsasoan gertatutako ezbeharraren berri eman arte. Orduan, itsasontziak lehorreratu eta prozesioa izango da moila muturreraino. Han, moila muturrean, itsasoan galdutako mutrikuar arrantzaleei omenaldia egingo zaie.

Eguna amaitzeko, Jazmanak girotuko du ziurrenik urdin-urdin jantziko den portu ingurua.

Goizeko Izarra ikastolan herriko hiztegiaren aberastasunaren lanketan aspaldian diharduen Xarkeik izango du, bai, ikasleei eta gurasoei gogorarazteko moduko hitzen zerrenda berri luzeak egiteko aukera, bai horixe! ✘

PLAZATIK GAZTETXERA 2009

Debabarreneko gaztetxeek eta Mutrikuko Bertso Eskolak antolatuta, bertsolari gazteei plaza berriak eskaini eta gaztetxeen arteko loturak lantzeko asmoz antolatutako ekitaldia dugu Plazatik Gaztetxera txapelketa. Aurtengoan, zortzigarren edizioa burutu dute.

Aurtengo txapelketa maiatzaren 29an abiatu zen Soraluzeko gaztetxetik, maiatzaren 30ean Elgoibarkoan jokatu zuten eta ekainaren 5ean izan zen finalaurrekoa Debakoan.

Ekainaren 12an Mutrikun jokatutako finalean bertaratutako bertsozaleek giro politaz eta bertso mamitsuz gozatzeko parada izan zuten. Taularatutako bertsolariak honako hauek: Hodei Iruretagoiena, Ander Elortegi, Ekhi Erremundegi, Egoitz Alkorta (Beano), Unai Gaztelumendi eta Beñat Iguaran. Txapeldunordea Beñat Iguaran, txapelduna berriz, Unai Gaztelumendi.

Zorionak irabazleei eta animoak antolatzaile eta partaide guztiei.



PAGOAGA S.A.
iturgintza - berogintza - gasa
igeltsaritza - aroztegia
Tel.: 943 74 02 79 - 943 74 05 12
Faxa: 943 74 35 65 / e-mail: pagoagasa@euskalnet.net
San Antolin, 13 - 20870 ELGOIBAR

OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:25 Página 20

BERTSO PAPER S

Lagun presoari eskutitza

Iñigo Andonegi Egurbide, 1991 urtea
VII. edizioko 1. saria

1.- Zure eskutitz txukun txuria
jaso nuen herenegun
berari poza dario harro
ongi zaudela ezagun
zuretzat antza soberan dira
mila hesi mila asun
zure ideiak sendoagotuz
bait doaz egunik egun
horrela jarrai denbora luzez
ene bihotzeko lagun.

2.- Zure jarduna bilakatu zait
galdera askoren ama
ez dagokit bat egoterikan
ametsen kontra etzana
lan gordinean murgilduko naiz
kaleko zirkoan barna
ahalik zorrotzen kontatzekotan
bizi dugun panorama
oportunisten miseriak ta
jende jatorraren xarma.

3.- Presoen gaia behin eta berriz
jasoa eta jauzia
da bazter oro egunotako
kukurruku nagusia
preso bakoitzak Bilboko gauan
izan du bere zuzia
ta inguruan oihu batean
trumoiaren doinuz ia
milaka aho aldarrikatzen
behin konpontzeko auzia.

4.- Zail samarra da ihes egiten
egoeraren latzari
maizegi poza lotuta dator
penaren uztarriari
gure herriko udal gizonez
baino ez natzaizu ari
beti bezela peneuveren
magalean kulunkari
ezetza eman zioten noski
SENIDEen mozioari.

5.- Etsipenari bidea janda
geurean tinko aurrera
igande goizez iritsi gara
Martuteneko atera
zahar eta gazte ukabil baten
zein aukeraren maukera
"etxetik hurbil nahi zaitugula"
ozen aldarrikatzera
han zeuden zakur begiluzeak
putretzarraren antzera.


6.- Soilik zakurra bagenu etsai
nahiago nukeen askoz
baina tamalez euskaldungoan
bertan da hainbat Pilatos
batabesteak bake merke bat
predikatzean bat datoz
kartzeletako negarrari gor
sakabanaketaz ados
Euskal Herria bete asmotan
borondatezko esklaboz.

7.- Ai lagun maite bada besterik
gure peria honetan
ACENOR eta zenbait lantegi
daude estuasunean
ogia ihes doa herritik
espainiarren hortzetan
langile finek euren gosea
ase nahi dutenak bertan
Euskal Herriko kalekantoiak
ezarri dituzte sutan.

8.- Hauteskundetan iletargia
eskainiz zetozkigunak
gaur konformismo antzuenaren
apostolu zentzudunak
gogorkerian murgilagotzen
gaituzten sasilagunak
hoietxek ari dira sinatzen
gose-kondena astunak
pobreziatik miseriara
eramanez euskaldunak.

9.- Jende zimaurraz arren ahaz zaitez
ta desitxaropena ken
gezurrak baino bide motzago
beste ezertxok ez omen
Herria ez da holako errez
muturra jiratzen uzten
egia bere bihotzondoan
datzala nola dakien
ekiten dion lan bakoitzari
poza dario nabarmen.

10.- Hamar bertsotan esatekoak
ia berea eman du
bihotza bete gai neuzkan arren
ezin ardirik azaldu
aldiz geurea iragartzeko
sekula ez da berandu:
bizitzak utzi digu euskaldun
izatea gure kargu
gezurretan blai dabil mundua
baina egia gara gu.



kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:25 Página 21

SARIKETAK 25 URTE

Independentziari

Iñigo Andonegi Egurbide, 1992 urtea
VIII. edizioko 1. saria
Doinua: Juana Bixenta Olabe

1.-
Honako honen, harako haren...
ez dakit euskaldunok zertan garen.
Itsasoaren jito zoroan
doan txalupa daukat gogoan.
Baina noiz arte?
hiru nagusi izatez aparte
barne ekaitzek larri gauzkate.

2.-
Haizea harro dabil uretan
euskal txalupa hondoratzekotan,
arraunlariak asko izaki
ados bogatzen lanak galanki,
nahi eta ezin,
denok ez dugu ikusten berdin
noiz eta nola portura egin.

3.-
Aitor dezadan deskaro puntuz
INDEPENDENTZIA dudala portuz,
ta Euskadiri zor natzaiola
-ez bait naiz frantses ez espainola-
bego hori hor,
tostakidea dabilan bizkor,
engainupean ez dut nahi inor.

4.-
Irrifar berri bat pasiatuz,
baten azaldu zitzaigun Arzallus:
"Euskal Herria, independente?
baina goseak hilko zarete
hil ere aise,
-zekena beti ondasun gose-
aza beharko zarete ase".

5.-
Askatasunaz ere nahiko lan
kontsumo peria hontako deman.
Baina lapiko sumarrari so
egotea al da hain preziso?
dagigun ames
ez dela eltzerik izango ahuspez,
ez sasoikorik kalean trabes.

6.-
Koldarkeriak ez digu uzten
ametsak bizitzen, bizitza amesten.
Nornahiren kide eta pareko,
ez ugazaba ez ogipeko,
nahi dugu izan,
"libre", ez "handi", txorien gisan,
guztien lagun, bake gerizan.

7.-
Ezin mamitu ezein ametsik
taloari beroan heldu ezik.
Herri hau ez da hitzetik bizi,
lagun bulartsu ta odol-bizi
hainbati esker
txalupa doa uretan eder,
porturatzeko moduan laster.

8.-
Espainiatik datoz lainoak:
"txarrak ei dira nazionalismoak"
uka bezate lehenik eurena,
jo gabe gerra danbor ozena.
Argi! Bestalde,
daukagun arren egia alde,
sasoi ilunen atean gaude.

9.-
Gudarientzat denbora mantso,
ibil bait gabiltz Babeldarren antzo.
Arraunketan bate gin ezean,
ihardunik era kamikazean,
gaur edo etzi
-ez aza ta ez INDEPENDENTZI-
olatutzarrek baietz irentsi.

10.-
Euskaldun orok behar bategin
Euskal Herria Euskal Herri dadin
Ikurrinaren deiari edo
Euskara hatzari jarraituz gero
dezakegu lor.
Ea mutilak jo txanpa gogor,
egun berria indartsu dator.

Gozoa jarriko litzateke gure Arzallus jauna "INDEPENDENTZIAri" bertsoak irakurriko balitu. Bertso hauek duela ia hogei urte idatziak dira, orduko esan-eginetan oinarrituak. Zehazki Euskal Herriaren independentzia ezbaian jartzen zuen Arzallusen komentario batean. Ez naiz izango ni Arzallusi hanka sartzeko eskubidea ukatuko diona, bian okasio hartan gogotik egin zuen. Honez gero damu da.

Anekdotak albora utzi eta, goazen mamira. Berrirakurri ditut bertsoak eta nahiko gaurkotasun antzeman diedala aitortu behar dut. Gezurra badirudi ere, nahiko tajuz isladatzen dute egungo gure egoera politikoa. Aurreikuspen batean, ordea, huts egin nuen nabarmen: Ahapaldi batean nioen "daukagun arren egia alde, sasoi ilunen atean gaude", eta egia esan, sasoi ilunak espero genituen, baina gaurkoak bezain ilunak...

Bertsoen egiturei dagokienean, zailak edo kondentsatuegiak edo iruditu zaizkit batzuk. Aukeran, kantatzeko baino irakurtzeko hobeak. Are hobeak, edozein modutan, praktikara eramateko. Neuk lehenbizi.

Iñigo Andonegi Egurbide

kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:25 Página 22

The Wet Band

Ainara, Aitzol, Endika eta Iñigo: lau mutrikuar, lau gazte, lau estilo desberdin, lau pertsona desberdin. Baina lau bide hauek elkarune bera dute: THE WET BAND. Esaten dutenez, beraien entsegu lokala dela-eta hartu zuten izen hau, izan ere, lokala egokia den arren, bentilazioa ez da hain egokia, eta entseguen ondoren busti-busti eginda amaitzen zuten. Rockean oinarritutako taldeak *Danbaka III. Saria* lehiaketako bi sari eskuratu zituen: ikusleena (1.300 euroko bonoa), eta sari nagusia (diskoa grabatzea). Ostiral gauean entsaiatu aurretik tartetxo bat eskaini ziguten jarraiko galderei erantzuteko.

Nola sortu zitzaizuen taldea sortzeko ideia?

Iñigo: Zorte kontua izan zen. Hasieran, Aitzolek eta biok elkarrekin jotzen genuen, gero Donostiara joan nintzen bizitzera, eta nire pisukideak Endika ezagutzen zuen. Endika taldekide bila zebilen, Mutrikun MRKko lokalak irekitzear baitzeuden eta taldetxo bat sortzeko asmoz elkartu ginen. Hirurok entsaiatzen hasi ginenean oso gustura sentitzen ginen, eta Malen jaietan gaztetxean jotzeko aukera luzatu zigutenean, noski, oso aukera ona iruditu zitzaigun herrian gure lehen kontzertua ematea.

Noiz eta nola hasi zineten musikaren munduan?

Endika: Guztiok jaso genuen musikaren oinarrizko hezkuntza musika eskoletan: Aitzol Mutrikuko musika bandan ibili zen, Ainara Mutrikuko Madalen abesbatzean, Iñigok pianoa joten zuen, eta nik Algortako kontserbatorioan gitarra klasikoa ikasi nuen. Gero ikasketa hau utzi, nire gitarra klasikoari gitarra akustikoaren sokak jarri, eta etxean ekin nion.

Ainara: Egia esan, musika eskoletan ibiliak izan arren, autodidakta puntua ere badaukagu. Taldean betetzen dugun papera, hau da, jotzen dituzten instrumentuak edo, nire kasuan, ahotsa, geure kabuz ikasi ditugu.

Noiz pentsatu zenuten abestiak bertsionatzeari "utzi" eta zuen abestiak kantatzen atrebitzea?

Aitzol: Nahiz eta jada geuk eginiko abestiak prestatzen hasiak ginen, Ainara taldean sartzeak lagundu egin zigun gure abestiekin aurrera egiten. Endikaren lagun baten bitartez jakin genuen Ainarari abestea asko gustatzen zitzaiola eta talde batean parte hartzeko prest zegoela. Ezin hobeto generitzon taldean abeslaria izateari, horrela bakoitzak bere kabuz instrumentua hartu eta abestiak egiten hasiko zen. Ainara sartu eta bi astera kontzertua izan genuen Donostiako taberna batean, eta bertan aurkeztu genuen gure lehenengo abestia.

Endika: Abesti ezagunen bertsioak jotzen ditugunean badakigu jendeari gustatzen zaiola, eta badakigu ikusleak ez direla aspertuko. Bertsionatzen duzunean, jendeak atsegin badu, lanaren laurdena egina duzu; beste guztia taldeak konposatutako abestiekin lortzen da. Nire ustez, horixe da talde batek izan dezakeen mementurik kritikoena, konposatutako abestiekin ikusleengana iristea. Momentu honetan, gu fase horretan aurkitzen gara.

> **"Instrumentua hartu eta sentitzen den guztia askatzea da garrantzitsuena**

Zertan inspiratzen zarete abestiak konposatzerakoan? Zeuek izandako esperentzietan ala beste gauza batzuetan?

Iñigo: Gure bizitza errealean inspiratzen gara, geuk izandako esperientzietan. Askotan gizarte kritikak ere izaten dira, eta nola ez, maitasunak ere badu lekurik gure artean.

Zergatik abesti gehienak ingelesez?

Ainara: Gehienok ingelesezko musika entzuten dugu; bestalde, ingelesak esaldi laburragoetan gauza gehiago esatea ahalbidetzen digu eta, gainera, ahoskatzerako orduan melodikoagoa da. Esan daiteke ingelesak ukitu berezi bat ematen diela abestiei.

Kontzertu bat eman aurretik ezer berezirik egiten al duzue?

Aitzol: Patxaran litro batzuk edan (barreak). Ez, egia esan, ez dugu ezer berezirik egiten. Gure artean animatzen gara, bizkarrean kolpetxo bat eman, "animo gaztiak" esan eta aurrera.

Nola daramazue bizitza pertsonala, hau da, lana edo ikasketak, eta taldea?

Aitzol: Aste barruan ezin izaten dugu entsaiatu, neu bainaiz Mutrikun geratzen den bakarra; beste guztiak kanpoan daude ikasten edota lanean, eta asteburua iristen denean geratzen gara entsaitzeko.

Ainara: Kanpoan ikasteak mugak jartzen ditu entsaiatzeko geratzerako orduan, gainera asteburua iristen denean gauza

kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:25 Página 23



Ainara, Aitzol, Endika eta Iñigo: THE WET BAND

asko egin nahi izaten dugu, eta batzuetan gauza horiek alde batera utzi behar izaten dira entsaiatzeko geratzen garelako. Baina, esaten den bezala, gogozko tokian aldaparik ez, beraz, entsaiatzeko geratu behar denean geratu egiten gara.

Musika, lan bezala edo "hobby" bezala?

Iñigo: Momentu honetan hobby bezala soilik hartu nahi dugu, lan bezala musikaren mundua oso zaila baita, baina musikatik bizitzea suertatuko balitzaigu onartuko genuke. Dirudienez, ez gara batere txarrak eta jendeari gustatu egiten zaio egiten dugun musika, eta hortik bizitzea ez litzateke hain gogorra izango, baina momentuz nahiago dugu hobby bezala uztea.

Nork proposatu zuen "Danbaka" lehiaketan parte hartzea?

Iñigo: Aitzolen lankide batek komentatu zigun lehiaketari buruzko zerbait. Maketa bat aurkeztu behar zen, eta herrian kontzertu bat eman eta bi astera ekin genion grabaketari. Gero zortea probatzera joan ginen eta, egia esan, zorteak gure alde egin zuen: berrogeita hamar partaide inguru ginen, eta inolako botaziorik gabe, bakarrik epaileen iritzia kontuan hartuta, hogeita laugarren postuan geratu ginen; lehenengo kontzertua jo, ordu erdi soilik, finalera iritsi eta, hau irabazteaz gain, ikusleen saria ere irabazi genuen.

Espero zenuten horrelako arrakastarik?

Endika: Ez, ez genuen espero horrelako arrakastarik, baina gauza bat genuen argi: taula gainean oso ondo funtzionatzen genuela eta ikusleekin *feeling* berezi bat genuela. Nahiz eta hasieran gure ikuslegoa herriko gazteak izan eta oso ondo aritzen ginela esan, herritik kanpo jotzen hasi ginenean jendea mugitzen genuela konturatu ginen, eta guztiek onak ginela esaten ziguten.

Nola ikusten duzue zuen etorkizun hurbila? Eta urruna?

Aitzol: Lehenengo, diskoa daukagu gure zain, gero gerokoak. Konpromisoei aurre egin, eta bidean gauza onak aurkituz gero ondo baino hobeto, txarrak aurkituz gero onartuak izango dira, eta aurrera jarraituko dugu ahal ditugun kontzertu gehienak ematen.

Iñigo: Etorkizun urruna… Uf… Ez dakigu, musika mundutik bizi bagara oso ondo, eta bestela, orain bezala jarraitzea ere ez legoke batere gaizki. Gure helburua ez da fama eta dirua lortzea, lagunarteko giro onarekin gustatzen zaigun honetan jarraitzea eta, batez ere, ondo pasatzea baizik.

Zuek bezala, hasiberriak diren talde gazteei ze aholku emango zeniekete?


Endika: Norberak gustatzen zaiona egin behar du, askotan erraza izan ez arren. Definitu gabeko gauzetan eta gustatzen zaizuna jarraituz, norberak eman dezakeen guztia eman eta aurrera egitea, anbizioak alde batera utzita. Musika, niretzako behintzat, ez da ez fama ez aberastasuna, beno, norberaren buruaren aberastasuna bai. Ondo pasatzea da garrantzitsuena, nork bere instrumentua hartu eta sentitzen duen guztia askatzea, adieraztea, helburu nagusia ondo pasatzea delarik.

Elkarrizketa amaitu ondoren, entsaiatzen hasi ziren eta, primizian, beraien abesti berri bat entzuteko aukera izan genuen. Eskerrak eman nahi dizkiogu *The Wet Band* taldeari, beraien entseguaren denboraren zati bat galdera hauei erantzuten pasatzeagatik eta zorterik onena opa nahi diegu laster kaleratuko duten diskoarekin, etorkizunean beraien ametsa bete dezaten. Zorionak, gazteak, eta animo! ✘

Goretti Mendizabal
(Institutuko batxilergoko 1 maila)

kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:25 Página 24

ZORION AGURRAK.....



JOXE MARI

Zorionak! ekainaren 18an 80 urte bete duzulako!
Eskerrik asko nire ondoan egoteagatik.
Muxu handi bat emazte Ameliaren partez.



ALAITZ

Happy birthday zure 9. urtean! Muxu handi bat Mickyri eta printzesa guztiei! Very much kisses zuretzat.
Ameriketatik bueltan ospatuko dugu.
Oskitz, Enaitz eta izeko-osaba guztiok.



ENEKO eta JON

Zeinen eguna uztailaren 5ian eta 15ian? Oporrak aillegatu dia eta gozatu oparixak, merezi dezuez eta! Matxo handi bana gure partez!



IRAIA

Uztailaren 21ean 3 urte beteko dituzunez, Zorionak aiton-amonen eta osabaren partez. Muxu handi-handi bat zuretzat!



ENAITZ

Zorionak gure etxeko mutil guapuenari, ekainean urtebete bete duzulako!
Milaka muxu haundi etxeko guztion partez, batez ere Amona eta Ibairen partez!



IKERNE eta KIKO

Uztailaren 1ean, bioi belarritik teinkada batzuk…
xuabe xu-xu-xuabe baina!
Zorionak eta krabelin usainezko muxuak biontzat.




NARKIX

Ekainaren 20an lauro-geita bat udaberri eta negu… kantatu dai-gun bizitza!
Zorionak bihotzez zure familiaren partez, batez ere zure biloba Aiora, Ekaitz eta Marenen patez.



ENEKO

Zorionak gure pirata onenari! Asko maite zaitugulako muxu eta besarkada handi bat!
Ea opari asko jasotzen duzun!
Amona, aitxona, osaba Unai, osaba Markos eta batez ere Titaren partez.



ENAITZ

I. Ekainaren 27an urtebete etorri zinela, hain txiki baina bihotz handi beti irribarrez. Jarraitu orain arte bezain indartsu! Aiton-amonak, osaba-izeko eta Oskitz eta Iraide.

II. Zorionak Enaitz! Dagoeneko urtebete egin duzu. Holaxe jarraitu! Ama, Aita eta amona Rositaren partez, muxu handi bat!



OSKITZ


I. Halako baten iritsi da 6. urtebetetzea, ekainaren 23an! Ea opari asko jasotzen duzun. 6 muxu handi Iraide, Ama, Aita, Amona eta Aitxonaren partez.

II. Zorionak kapitaina! 6 urte bete dituzunez, prestatu atunetarako. Opariak zain dituzu eta etorri azkar! Enaitz, osaba eta izeko.



PELLO eta ANDREAS

Zorionak bikote! Uztailaren 12an bota itxapleruak ta gero gerokuak. Animooooo!



JENNI

Zorionak! ...eta muxu baten zain!.



NAIA

Zorionak gure etxeko printzesitari, ekainaren 5ean bi urte bete dituelako. Etxeko danon partez muxu handi-handia.



UGAITZ

Ekainaren 27an 8 urte beteko duzulako, ZORIONAK etxeko guztien partez, batez ere, Lander, Naroa, Ainhoa eta Monikaren partez.
Ondo pasa zure urte-betetzea leku zoragarri horretan.



MIREN

Zorionak! Irati, Gari eta Urkok.

zer da? non dago?



kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:26 Página 25

Argazki Zaharrak



Arraina saltzen, 1948 urtean
Pilar Landa "Kalamax", 16 urte zituela

Pototo Hilton, 1978 urtean
San Miguel kanpofubol zaharrean, Mutriku FTren txapelketan.
Tente, ezker-eskuin:
Mikel Atxa, Jose Mari Landa "Perras", Josu Arrizabalaga, Joxe Angel Zubizarreta "Kurpitxa", Jesus Mari Lizardi "Kanuto", Aitor Beristain, eta Enrike Urresti.
Kukulumutxu, ezker-eskuin:
Jose Agustin Vitoria, Joseba Andoni Urkaregi, Jon Arrizabalaga "Masillas", Andoni Agirregomezkorta, Fran Garagarza, eta Aitor Urreizti.
A. Arrietak ateratako argazkixa



IÑIGOBELEN
konde 3 - tfnoa. 943603701
argazki lanak
erretoke digitala
diseinu grafikoa
fotokopiak zuribeltzean/koloretan
euskal preso eta iheslariak etxera

ANSORREGI
Oinetakoak
Erdiko kale, 9 - 943 60 33 42

kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:26 Página 26



MENDI IRTEERAK'2009

BURUMENDI, ARTIBAI, AURRERA, LUMENTZA, ETA BURDIN KURUTZ MENDI ELKARTEEK ANTOLATUTA

- **Ekainak 21**

Itxaso–Artzamendi (931 m., Lapurdi)–Itsusiko Aitzak– Bidarrai

- **Uztailak 3, 4 eta 5** / Palentziako mendiak:

· Cardaño Arriba–Peña Prieta (2538 m.)–San Glorio
· San Glorio–Coriscao (2234 m.)–La Vueltona (1960 m.)

- **Irailak 13**

Ataun – Sarrastarri (996 m., Nafarroa) – Lareo – Lizarrusti

- **Urriak 25**

Toloño mendilerroa (1271 m., Araba)
(Bazkaria Labastidako bodega baten)

- **Azaroak 15**

Kortakogain – Aumategi (1191 m., Elgeako mendilerroa) – Ozaeta

- **Abenduak 13**

Deba inguruak.

ODOLA EMATEKO EGUNAK'2009

MUTRIKUKO ODOL EMALEEN ELKARTEAK ANTOLATUTA

ekainak 20 - abuztuak 20 - urriak 10 - abenduak 19

Egun guztiak barixaku, arratsaldeko 18.00etatik aurrera

ZINE FORUM

Hurrengo emanaldia, uztailaren 4an
Musika Bandarekin batera
gabeko 22:30etan Goiko plazan

uztailaren 19ra arte

ERAKUSKETA: Kaperatasuna XVI-XIX mendeetan.
Zabiel kultur etxean
eguen eta barixakuetan, 18.00-20.00
larunbat eta domeketan, 12.00-14.00 eta 18.00-20.00

ekainak 19, barixakua

BERTSO SAIOA: Ez da kasualitatea
Uxue Alberdi, Estitxu Eizagirre, Maialen Arzallus, Ainhoa Agirrezaldegi eta Unai Muñoa bertsolariekin
Zabiel kultur etxean, 22:00etan
Berdintasunerako udal sailak eta Bertso eskolak antolatuta

ekainak 20, zapatua

HERRI-ANTZERKIA: "800 URTE, 800 ALDARTE"
Txurruka plazan, gaueko 22:30etan
Goizeko Izarra Antzerki Taldeak antolatuta

ekainak 21, domeka

UMEEN EUSKAL JAIA
Goizean zehar kalejira herrian zehar, eta arratsaldean alardea Txurruka plazan
Gure Ametsa Dantza Taldeak antolatuta

ekainak 23, martitzena, San Juan bezpera

SAN JUAN SUAK

ekainak 27, zapatua

Errealaren lagunen jaialdia, egun osoan herrian zehar
ESTROPADAK, arratsaldean, portuan
Gipuzkoako txapelketa

ekainak 28, domeka, SAN PEDRO bezpera

ITXAS EGUNA, portuan, egun osoan zehar

uztailaren 1etik 21era

UDALEKU IREKIAK
TXANTXANGORRI aissialdi taldeak antolatuta

uztailak 4, zapatua

Bandaren kontzertua eta pelikulen zatien emanaldia
Txurruka plazan, gaueko 23:00etan
Bandak, Zine Forumek eta MRKk

uztailak 11, zapatua

Akordeoi alardea
Txurruka plazan, gaueko 23:00etan

uztailak 18, zapatua

GRAFFITI LEHIAKETA, Goiz-arratsaldean herrian zehar
SPINNING, Moila berri atzean, arratsaldean
TXISTU ALARDEA, Txurruka plazan, gaueko 23:00etan

uztailak 19, domeka

Mutrikuko eta Kataluniako erraldoien kalejira

uztailaren 21etik 25era

MALEN JAIXAK

Zure establezimenduaren berri mutrikuar guztiei emateko...
KALAPUTXI
Luardo etxea, behea · Barrenkale, 12 · Tel. 635748393
kalaputxi@topagunea.com

EDOZEIN EKITALDI AGENDA HONETAN AGERTZEKO:
kalaputxi@topagunea.com
edo
635748393

kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:26 Página 27

UDAL EUSKALTEGIAK



WANTED

- *Persona mayor de 16 años*
- Gizona edo emakumea
- *Nativo o inmigrante*
- Ikaslea, langilea, langabea edo jubilatua
- *Y...con ganas, voluntad o necesidad de aprender* ***euskera***

UDAL EUSKALTEGIAK
www.udaleuskaltegiak.net

27 urte euskara irakasten. Todos los niveles. 43 zentro.
HABEko diplomak. Horarios personalizados. Bekak...

★ MATRIKULA ZABALIK ★ | ✻ UDAKO IKASTAROAK ✻ Titulu ofizialak | ★ MATRÍCULA ABIERTA ★

Aretxabaleta | Arrasate | Azpeitia | Beasain | Bergara | Deba | Eibar | Elgoibar | Errenteria | Eskoriatza | Hernani | Hondarribia | Irun | Lasarte-Oria | Legazpi | Mutriku | Pasaia | Tolosa | Urretxu-Zumarraga | Zarautz

✻ UDAKO IKASTAROAK ✻

Titulu ofizialak

2009ko EUSKARA IKASTAROAK

EGA LORTZEKO IKASTARO BEREZIA

Uztaila- Iraila

Ekainaren 29tik uztailaren 24ra. 3 ordu egunean.
Irailaren 7tik 18ra. 2 ordu egunean.

PREZIOA: 110 euro.
Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 67,50 euro.

Bekatze sistema.

MATRIKULALDIA:
ekainaren 25era arte

ESKAINTZA BERRIA!

1., 2., eta 3. MAILA LORTZEKO IKASTAROAK

2. deialdiko azterketak

Irailaren 7tik azaroaren 19ra. 2 ordu egunean.

PREZIOA: 150 euro.
Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 86 euro.

Bekatze sistema.

MATRIKULALDIA:
irailaren 4ra arte

Debabe Udal Euskaltegien mankomunitatea **25. urteurrena**

UDAL EUSKALTEGIAK
www.udaleuskaltegiak.net

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA
LUARDO etxea
Sabanika aldapa, 4
20830 MUTRIKU
Tel. 943 60 30 94
e-posta: mutriku@udal.gipuzkoa.net

artizar

fisio lan taldea

San Agustin, 10 behea MUTRIKU

943 603 655

masajeak baino askoz ere gehiago

kalaputxi 85.qxd:kalaputxi 57_6.qxd 16/06/09 0:26 Página 28

Yurrita
KALITATEZKO GASTRONOMIA

Ondo jan, osasuntsu jan, ...Yurritarekin jan



Plater prestatuetan aukera zabala





yurrita e hijos, s.a.
Ctra. a Ondarroa, s/n
20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)
Tel.: 943 603 245
Fax: 943 604 420
www.yurrita.com